Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4077

EBAZPENA, 2010eko uztailaren 29koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak emandakoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzeko espedientea abiarazteko eta jendaurrean jarri eta horretan interesa dutenei entzunaldia emateko.

Irailaren 5eko 2224/1962 Dekretuaren bidez (irailaren 7ko BOE, 215. alea), Donejakue Bidea multzo historiko-artistiko izendatu zen, baina bidearen ibilbidea zein den grafikoki dokumentatu gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoak erabat bereganatuta dauka Kultur Ondarearen arloko eskumena, Konstituzioaren 148.1.16 artikuluaren babesean eta Autonomia Estatutuaren 10.19 artikuluak xedatutakoaren arabera. Aipaturiko eskumen hori gauzatuz, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan kultura-interesa duten ondasunak deklaratzeko prozedurak ezartzen dituena.

Hala, urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuaren bidez, Monumentu Multzo kategoriako Kultur Ondasun izendatu zen Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia. Orduan zehaztu zen grafikoki bidearen trazatua, baina garrantzi gehiago eman zitzaion eduki «xakobeoaren» aldetik garrantzia zeukaten mugarriak lotzeari, trazatua bera bide fisiko moduan zehazteari baino. Horrek erabat lauso utzi zuen, definitu gabe, bidearen trazatua; baina ondorengo azterlanek zehaztapen gehiago eman dute apurka-apurka.

Ildo horretatik, ondoren egin diren azterlanek bertatik ibiltzeko moduko ibilbide erreala eta fisikoa finkatzea hartu izan dute helburu; ibilbide etenik gabea eta segurua behar zuen erromesentzat, eta lehentasuna ematen diena leku historiko eta publikoei; baina leku edo gune gogoangarrien segida hutsa izan beharrean, gehienetan, bide historiko edo galtzada publikoez lotu dira leku gogoangarriok, ahal izan den heinean, alde batera utziz errepideak eta bide arriskutsuak.

Horrenbestez, XXI. mendeko ibilbidea finkatu da, historiaren joanean moldatua, eta zeharkatzen dituen lekuetako kultur ondarea agerian jartzen dituena; erakutsiz, ibilbidean zehar han-hemen agertzen diren mugarriak garapen historikoaren eragile eta eragin direla, aldi berean. Ibilbide kulturala, denboran joanean gertatutako elkartruke kultural, sozial eta eko-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4077

RESOLUCIÓN de 29 de julio de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, del Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Mediante Decreto 2224/1962 de 5 de septiembre (BOE n.º 215, de 7 de septiembre) fue declarado conjunto histórico-artístico el Camino de Santiago, sin que se documentara gráficamente el recorrido del mismo.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural. En ejercicio de la competencia asumida, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Es así que por Decreto 14/2000, de 25 de enero, se calificó como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco. En esta fecha se delimitó gráficamente el trazado en el que se favoreció más la unión de los hitos de significación jacobea que el propio trazado como camino físico. Esto ha provocado una indefinición que los estudios realizados desde entonces han ido subsanando.

En este sentido los trabajos posteriores se han orientado en fijar una ruta real y física que fuera practicable, continua para el peregrino y segura, primando su discurrir por caminos históricos y públicos, no siendo tan solo la sucesión de hitos o lugares, sino que éstos se han unido de manera física en su mayoría a través de caminos históricos o calzadas públicas evitando, en la manera de lo posible, las carreteras y las vías peligrosas.

Por lo tanto, se ha fijado un itinerario del siglo XXI que se ha ido configurando a través de la historia y donde se visualiza el patrimonio cultural de los lugares que atraviesa, recuperando la idea de que los hitos que jalonan el recorrido explican y a la vez son causa y consecuencia de un desarrollo histórico. Un itinerario cultural, además, donde se ha observa-

nomikoen isla egiten duena. Zehaztapen hau guztia sartuta, atzean utzi dugu kultur ondasunei buruzko ikuspegi estatiko eta isolatua; orain, ibilbidea elementu dinamiko eta bizia da, bidea sortu zuten herrien eta heredatu duten herrien bizitza sozialaren funtsezko osagaia.

Bidearen trazatu fisikoa baita bertan agertzen diren elementu eta ondare-multzoak paisaian barneratzen eta batzen dituen bizkarrezurra, osotasun bakarra eratzea lortzen duena.

Bai bidearen trazatua bera, bai bertako ondare-elementuak bidearen ertzetan mendez mende sortu den kultur ondarean adibide dira.

Ikusita Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia zenbateraino den garrantzitsua historikoki nahiz kulturalki, eta Kultur Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek aurkeztutako ebazpen-proposamena aztertuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Espedientea abiaraztea Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzo kategoriako Kultur Ondasun Sailkatu izendatzeko; ebazpen honetako I. eranskinean jasotako deskribapenaren egingo litzateke izendapena, kontuan hartuta bai II. eranskinean ezarritako mugaketa, III. eranskinak dakarren babes-araubidea eta bideari atxikitako elementuen zerrenda (IV. eranskina).

Espediente hori abiarazteak zehaztuko du, bai Donejakue Bideari dagokionez bai bideari atxikitako ondasunei dagokienez, nola aplikatuko den behin-behinekoz ondasun sailkatuen Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean jasotzen den babes-araubidea.

Bigarrena.– Herritarrei informazioa emateko aldi bat hastea, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzo kategoriako Kultur Ondasun Sailkatu izendatzeko espedienteari buruz informazioa emateko (ebazpen honetako I. eranskinean jasotako deskribapenaren egin da litzateke izendapena, kontuan hartuta bai II. eranskinean ezarritako mugaketa, bai III. eranskinak dakarren babes-araubidea eta bai IV. eranskinean datorren bideari atxikitako elementuen zerrenda). Hartara, ebazpen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 20 egun bete artean, nahi duenak aukera izango du egoki iruditzen zaizkion alegazioak jartzeko eta nahi duen dokumentazioa aurkezteko, horretarako aukera eman behar dela agintzen baitute Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari

do la continuidad de intercambios culturales, sociales y económicos a lo largo del tiempo. Con esta incorporación se ha superado la visión estática y aislada de los bienes culturales, donde el propio itinerario es un elemento dinámico y vivo que forma parte fundamental de cada uno de los momentos de la vida social de los pueblos que lo crearon y de los que lo han heredado.

El trazado físico del Camino es el hilo conductor y vertebrador que permite la unidad e integración en el paisaje de los diferentes elementos y conjuntos patrimoniales afectos, configurando una unidad.

Tanto el propio trazado del Camino como los elementos patrimoniales afectos son el resumen, a lo largo de los siglos, del patrimonio cultural de las zonas que recorre.

Visto el interés histórico-cultural del Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco y atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural.

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de declaración como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, del Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco, según la descripción que se determina en el anexo I de la presente Resolución, teniendo en cuenta la delimitación establecida en el anexo II, el régimen de protección que se incorpora en el anexo III y la relación de elementos afectos al Camino que se recoge en el anexo IV.

La incoación de este expediente determinará respecto del Camino de Santiago y los bienes vinculados al mismo, la aplicación provisional del régimen de protección previsto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco para los bienes calificados.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente incoado para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, del Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco, en base a la descripción que se determina en el anexo I de la presente Resolución, teniendo en cuenta la delimitación establecida en el anexo II, el régimen de protección que se incorpora en el anexo III y la relación de elementos afectos al Camino que se recoge en el anexo IV, para que durante el plazo de 20 días contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento

buruzko 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluek. Espedientea Euskal Kultur Ondarearen zentroan egongo da edonoren ikusgai: Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian.

Hirugarrena.– Jakinaraztea Donejakue Bidea bertatik pasatzen zaien udalerrietako udalei; Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirolen Sailari, Tokiko Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari; Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura, Garraio eta Hirigintzako Sailei; eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailari, eta Mugikortasun eta Lurralde Antolamenduko Sailari, prozedura hau abiarazi dela-eta, bertan behera geratuko direla ebazpen honek eragiten dien finketan partzelazioa, eraikinak edo eraisketak egiteko udal-baimenak, bai eta emandako baimenen ondorioak ere. Halako finkaren batean ezinbestean obraren bat egin beharko balitz, bertako Foru Aldundiaren baimena eskuratu beharko da derrigor, aurrez.

Laugarrena.– Espedienteak aurrera jarraitu dezala, indarrean diren xedapenen arabera.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea Donejakue Bidea bertatik pasatzen zaien udalerrietako udalei; Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirolen Sailari, Tokiko Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari; Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Garraio eta Hirigintzako Sailei; eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailari, eta Mugikortasun eta Lurralde Antolamenduko Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ALHAOn argitaratzea, denen jakingarri.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 29a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián, n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Hacer saber a los Ayuntamientos por los que discurre el Camino de Santiago, a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava, a los Departamentos de Cultura y de Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia y a los Departamentos de Cultura y Euskera y de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que la incoación del presente procedimiento causa la suspensión de las correspondientes licencias municipales de parcelación, edificación o demolición en las fincas afectadas, así como de los efectos de las ya otorgadas. Las obras que por razón de fuerza mayor hubieran de realizarse con carácter inaplazable en las fincas precisarán, en todo caso, autorización de la Diputación Foral correspondiente.

Cuarto.– Continuar la tramitación del expediente de acuerdo con las disposiciones vigentes.

Quinto.– Notificar la presente Resolución a los Ayuntamientos por los que discurre el Camino de Santiago, a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava, a los Departamentos de Cultura y de Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia, a los Departamentos de Cultura y Euskera y de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, en el Boletín Oficial de Bizkaia, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el BOTHA para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

DESKRIPZIOA

DONEJAKUE BIDEA EUSKADIN

Euskadiko Donejakue Bideak bi ibilbide ditu: bata, ekialdetik mendebaldera doa, Gipuzkoa eta Bizkaia zeharkatuz, eta, bestea, iparraldetik hegoaldera, Gipuzkoatik eta Arabatik igaroz. Ibilbideetan zehar, Donejakue Bidea lehen mailako ondare-multzoekin eta -elementuekin dago lotuta; horiek guztiak, hain zuzen, zeharkatzen dituen lekuen eta guneen adierazpen dira.

A) Kostaldeko Bidea.

Ramon Menendez Pidal historialariaren hitzetan, Kostaldeko Bidea Santiago de Compostelara erromesaldian iristeko lehenengo bideetako bat da, gerora benetako bidetzat hartu izan diren zenbait baino lehenagokoa; bide hori, hasiera batean, Bizkaiko golkoaren paralelo iragaten zen, Bizkaiko mendebaldeko mugetara arte. Donejakue Bidearekiko debozioaren lehenengo hamarkadetan (IX. eta X. mendeetan), ibilbide hori aukeratu zuten erromesak aurki ditzakegu; horiek, hain zuzen, antzinatik finkatutako galtzadak erabiltzen zituzten. Compostelako tradizioaren hastapenetan, Pirinioak gurutzatzen zituzten erromesek zeharkatu beharreko Nafarroako bideak musulmanen mehatxupean zeuden; Kostaldeko Bidea, beraz, seguruagoa zen. XIII. mendetik aurrera, Gipuzkoa Gaztelaren barruan sartzearen ondorioz bideetan egin ziren hobekuntzak direla-eta, San Adriango Tuneletik igarotzen zen bidea garrantzia hartzen hasi zen; Kostaldeko Donejakue Bideak ongi eutsi zion lehiari, eta indartuz jarraitu zuen, hura aukeratzen zuten erromesei eta, urruneko herrialdeetatik etorrita, Gipuzkoako edo Bizkaiko edozein portutan lehorreratzen ziren bisitariei esker.

Aurkitzen zuten Gipuzkoako lehenengo zatia, ordea, ez zen inola ere ibilbide erosoa. Bidasoaren ibai-ahotik Bizkaiko mugaraino, Oiartzun, Urumea, Oria, Urola eta Deba ibaiek hautsi egiten dute itsasora heltzean Gipuzkoako kostaldearen jarraitutasuna, eta horrek zaildu egiten zuen bertatik oinez ibiltzea. Zenbait bidaiariri zirrara handia eragin zion ibilbide horrek «lekuaren laztasuna, biztanleen basatikeria eta nonahi aurki daitezkeen Ozeanoaren itsasadarren indar harrotua» zirela-eta. Horiek izan ziren, esaterako, Hugo de Oporto Portugalgo apezpikuak 1120an egindako bidaian egin zituen adierazpenak.

Zailtasun horiek, Gipuzkoako kosta malkartsua zeharkatzearen ondorio izan daitezkeenak, desagertu egiten dira Markina-Xemeindik barna Bizkaian sartu eta Lea-Artibai eskualdeko haran lasaietan barna ibili orduko.

ANEXO I

DESCRIPCIÓN

CAMINO DE SANTIAGO EN EL PAÍS VASCO

El Camino de Santiago en el País Vasco recorre dos rutas, una de este a oeste, atravesando Gipuzkoa y Bizkaia, y otra de norte a sur, recorriendo Gipuzkoa y Álava. A lo largo del itinerario el Camino aparece vinculado a conjuntos y elementos patrimoniales de primer orden, todo ello representativo del patrimonio cultural de los lugares y las zonas que atraviesa.

A) El Camino de la Costa.

En palabras del historiador Ramón Menéndez Pidal, el Camino de la Costa, que en origen corría paralelo al Mar Cantábrico hasta los límites occidentales de Bizkaia, es una de las primitivas rutas de peregrinación a Compostela, anterior incluso a algunas que luego se han tenido por genuinas. Ya en las primeras décadas de devoción jacobea (en los siglos IX y X) hay constancia de peregrinos que optaban por esta ruta y que se servían de calzadas previamente consolidadas desde tiempos remotos. En los albores de la tradición compostelana, las tierras navarras que debían atravesar los peregrinos que cruzaban el Pirineo estaban por aquel entonces amenazadas por los musulmanes. El Camino de la Costa era por lo tanto el más seguro. Cuando a partir del siglo XIII, como consecuencia de las mejoras viarias que trajo consigo la incorporación de Gipuzkoa a Castilla, el Camino del túnel de San Adrián comenzó a ganar en importancia, la ruta jacobea de la costa soportó bien la competencia y siguió alimentándose tanto de los peregrinos que optaban por esta vía como de aquellos que, procedentes de lejanos países, desembarcaban en cualquiera de los puertos guipuzcoanos o vizcaínos que jalonan el trayecto.

El tramo primero guipuzcoano con el que se encontraban, sin embargo, distaba mucho de ser un cómodo paseo. Desde la desembocadura del Bidasoa hasta el límite con Bizkaia, los ríos Oiartzun, Urumea, Oria, Urola y Deba van rompiendo a su llegada al mar la continuidad de la costa guipuzcoana y con ello la dificultad en el caminar. Hubo viajeros a los que este itinerario causó una fuerte impresión por «la aspereza del lugar, la atrocidad de sus habitantes, la furia hinchada de los brazos de Océano que por doquier se encuentran». Estas fueron, por ejemplo, las observaciones realizadas en su viaje de 1120 por Hugo de Oporto, Obispo de Portugal.

Estas contemplaciones que puede conllevar recorrer una costa abrupta como la guipuzcoana desaparecen en cuanto entramos en Bizkaia a través de Markina-Xemein y recorremos los plácidos valles de la comarca de Lea-Artibai.

Europako erdialdetik nahiz iparraldetik abiatuta eta Baionatik igaro eta gero, egun Rue de Santiago izena duen lekura iristen ziren erromesak (Hendaia); han zegoen eraikita Zuberoako Abadia, eta, bertan, prioreak hartzen zituen, ondoan zegoen ospitale batean (hala agertzen da 1355 inguruko dokumentuetan).

Kostaldeko Bidea Hendaiatik sartzen zen penintsulara, eta Behobiako ibitik barna Bidasoa zeharkatzen zuten erromesek, gabarren bidez; hala Hondarribira iristen ziren. Erromesak Santa Engrazia baselizaren ondoan lehorreratzen ziren. Izan ere, leku hori askoz ere seguruagoa zen itsasora irekiago zeuden eta Bidasoaren barra arriskutsua eta aldakorra zeharkatzen zuten eremuetan egindako beste kokalekuak baino; horietan, alferrikako arriskua izaten zen,

1200. urtean, jada, Hondarribia gotorlekutzat agertzen zen, eta egun, oraindik, garai hartako harresien zati bat eta Karlos V.aren gaztelua aurki daitezke. Donejakue Bideak hiribilduaren alde zaharra alderik alde pasatzen zuen, Kaizarra kaitik hasi eta Santa Engrazia baselizara arte, eta, egun, oraindik, hala egiten du; baselizaren ingurutik Jaizkibel mendirako igoera hasten da. Igoera horretan, Santiagotxo baselizan, Irundik sartzea erabaki zutenen bide-adarrarekin egiten du bat, eta handik Guadalupeko Andre Mariaren santutegirako igoera hasten da.

Bideak aurrerantz jarraitzen du gailurreko lerroa zeharkatzen duen bidezidorretik barna, eta, gorantz eginez, antzinako Erramuz eta Santa Barbara dorretzarrak lotzen ditu; hala, Jaizkibelgo gailurrera iristen gara, eta, han, San Enrikeren gaztelua aurki daiteke. Poliki-poliki beherantz egiten da, eta, beste bi dorreren ondotik igaroz, Lezoko alde zaharrera jaisten da. Lezoko udalerria zeharkatuz Bideak Pasai Donibane ondoko herrirantz jarraitzen du; han, umildegiaren alboan, motordun txalupan sartu behar da, portuko bokalea zeharkatu eta Pasai San Pedrora iristeko. Azken udalerri horretan, Zilarrezko Itsasargiraino iristen da, hilerriaren ondotik pasatuz.

Itsasargitik abiatuta kostaldeko bidetik jarraitzen du Bideak, eta, Ulia mendia zeharkatuz, Donostia-San Sebastiánera iristen da. Kostaldeko lerroari jarraituz, sartzen da hiriburuan; beraz, Kursaalaren, Bulebarraren eta Kontxako pasealekuaren aurretik igarotzen den ibilbidea egin behar da, Ondarretako loratzegietara iritsi arte. Handik, Igeldo mendira igotzen da. Bidearen zati honetan, Gipuzkoako hiriburuko landa-guneko zenbait baserriren ondotik igarotzen da, Irangure eta Egiluze baserrien hondotik, esaterako.

Donejakue Bidea Orion sartzen da, eta, bertan, alde zaharrera jaitsi aurretik, Lusarbe, Munioeta eta Aganduru baserrien eta San Martin baselizaren ondotik igarotzen da. Itsasadarra igaro eta Altxerri ubidea gurutzatuz, Aiako udalerrira iristen gara. Donejakue Bidea San Pablo baselizaren eta Oribazar hondartzaren ondotik igarotzen da, eta, handik, txakolina egiteko mahastiak dauden gune batera zuzentzen da, Torretxo eta Oribar baserriak atzean utzita.

Procedentes del centro y norte de Europa, después de pasar por Baiona, arribaban los peregrinos a la que hoy se llama Rue de Santiago en Hendaia, villa en la que se alzaba la Abadía de Zubernoa, donde el prior los atendía en un hospital anexo, citado en la documentación hacia 1355.

El Camino de la costa entraba en la península desde Hendaia, y por el vado de Behobia se cruzaba el Bidasoa por medio de gabarras, hasta alcanzar Hondarribia. Los peregrinos desembarcarían junto a la ermita de Santa Engrazia. Este lugar era mucho más seguro que otros emplazamientos realizados en zonas más abiertas de mar y que atravesaban la peligrosa y cambiante barra del Bidasoa, corriendo riesgos innecesarios.

Ya en 1200 Hondarribia figuraba como plaza fuerte y conserva en la actualidad parte de sus murallas y el castillo de Carlos V. El Camino atravesaba, y sigue haciéndolo, el casco antiguo de la villa, desde el embarcadero de Kaizarra hasta la ermita de Santa Engrazia desde donde comienza el ascenso al monte Jaizkibel. En esta subida, en la ermita de Santiagotxo, se une el ramal de aquéllos que decidieron entrar por Irun para comenzar la ascensión al santuario de Nuestra Señora de Guadalupe.

El Camino prosigue por un sendero que recorre la línea de cresta y que, ascendiendo, une los antiguos torreones de Erramuz y Santa Bárbara, hasta alcanzar la altiva cumbre del Jaizkibel, donde se alza el castillo de San Enrique. Desde aquí va descendiendo paulatinamente y, tras pasar junto a otras dos torres, baja al casco histórico de Lezo. El Camino cruza la localidad de Lezo y se dirige hacia la vecina Pasai Donibane donde junto al humilladero se embarca para cruzar la bocana del puerto y acceder a Pasai San Pedro. En esta localidad se llega hasta el Faro de la Plata, pasando junto al cementerio.

Desde el faro, por una senda costera, recorriendo el monte Ulia, se alcanza Donostia-San Sebastián. Se entra en la capital siguiendo la línea de la costa, lo que implica atravesar por el recorrido que pasa delante del Kursaal, el Boulevard y el paseo de la Concha, hasta los jardines de Ondarreta, desde donde se sube al monte Igeldo. En este tramo del Camino se pasa junto a algunos antiguos caseríos de esta zona rural de la capital guipuzcoana, como son Irangure y Egiluze.

La ruta jacobea se adentra en Orio donde, antes de descender al casco histórico, pasa junto a los caseríos Lusarbe, Munioeta y Aganduru y la ermita de San Martín. Tras salvar la ría y cruzar la regata Altxerri llegamos al término de Aia. Aquí el Camino pasa junto a la ermita de San Pablo y la playa de Oribazar y desde ahí el trazado se dirige a una zona de viñedos de txakoli, dejando atrás los caseríos Torretxo y Oribar.

Ibilbidearen hurrengo udalerria Zarautz da. Alde zaharrean sartu aurretik, Agirrebekoa baserriaren ondotik igarotzen da, bai eta frantziskotarren komentuaren atzetik ere. Udalerriaren erditik pasaz, Aldapeta aldapan gora egiten du, Zarautz eta Getaria lotzen zituen galtzada zaharretik; bidean Santa Barbarako baselizaren gertutik igarotzen da, eta, galtzada atzean utzita, Getariarantz jarraitzen du.

Getariako herrigunetik Askizuko galtzadatik barna irteten da, eta Gaintza eta Akerregi Txiki baserrietara iristen da; handik, Azti pasealekurantz egiten du, eta, zuzenean, Askizu auzora igotzen den bidea hartzen du. Han San Martin eliza dago. Inguru horretan, Zumaiara iritsi aurretik, Arano baserriaren aurretik pasatzen da. Zumaiarantz jaisteko bidea zuhaizti batetik igarotzen da, eta, gero, pasealeku batetik jarraitzen du, Zuloaga Museora eta Santiago baselizara iritsi arte; hala, Urola ibaiaren gaineko oinezkoentzako zubi batera iristen da. Bertatik, Narrondo ubidea igarotzen da, oinezkoentzako beste zubi bat zeharkatuz, eta Zumaiako herrigunera igotzen da.

Donejakue Bidea Zumaiatik irteten da Sorazu eta Arritokieta kaleetatik gora eginez, eta izen bereko baselizara eta hilerrira iristen da. Landa-gune batetik jarraitzen du, eta, han, Mardari auzoko baserriak aurkitzen ditugu; besteak beste, Zubeltzuzar baserria eta Santuaran benta azpimarratu behar dira, Mardariko landa-gunetik urrun samar daudenak. Usabaratza baserria igarota, Itziarko gainera iristen gara; han, Andre Mariaren eliza nabarmendu behar da. Bideak San Roke baselizatik barna jarraitzen du, Debako alde zaharrera iritsi arte.

Donejakue Bideak Deba uzten du atzean bi ibilbideren bidez. Lehenengoa Sasiolakoa da, zaharrena; bertatik, ospitalera eta izen bereko komentura sartzen da, Astigarribiako San Andres elizara iritsi arte.

Bigarren aukera kalbarioaren bidea da. Debatik irteten da Mutrikuko zubitik barna. Buztiñaga eta Pikoaga baserrien ondotik gurutzatzen du. Gero, aurrera jarraitzen du Maiako Kalbarioa baselizara iritsi arte, eta, bertatik, Aparainera jotzen du; aurrez, ordea, Eizagirre baserriaren ondotik pasatzen da. Bi ibilbideek Aparainen egiten dute bat, izen bereko estelatik gertu, eta, gero, Olatzerantz jarraitzen du Donejakue Bideak.

San Isidro baseliza atzean utzita, bidegurutze batera iristen gara, eta, han, mendi-bide bat hartzen da, Gorostolamendi muinorantz; horrek, hain zuzen, Bizkaia eta Gipuzkoa banatzen ditu. Donejakue Bideak Jangoikomendi inguratuko du, eta, gero, beherantz egingo da, honako baserri hauen ondotik pasatuz: Damukorta, Arnoate eta Sakoneta. Aurrera jarraitzen da, eta, Amulategi baserria igaro eta gero, jaitsiera gogorra dago, Markinako plazara iritsi arte; gune horretako eraikin esanguratsuenetakoak dira Barroeta dorrea eta Arretxinagako San Migel baseliza. Gernika

El siguiente municipio del recorrido es Zarautz. Antes de entrar en el casco histórico, pasa junto al caserío Agirrebekoa y por la trasera del convento de los franciscanos. Tras atravesar el centro de la población, toma la cuesta de Aldapeta, por la antigua calzada que unía Zarautz con Getaria, pasa cerca de la ermita de Santa Barbara y, tras dejar atrás la calzada, continúa hacia Getaria.

Se abandona la villa de Getaria transitando por la calzada de Askizu, hasta llegar a los caseríos Gaintza y Agerregitxiki y de allí al caserío Azti, alcanzado el camino que directamente sube al barrio Askizu donde está ubicada la iglesia de San Martín. En este paraje, antes de llegar a Zumaia, se cruza delante del caserío Arano. En el descenso hacia Zumaia, a través de una zona arbolada, la ruta discurre por un paseo hasta el museo Zuloaga y la ermita de Santiago, llegando a un puente peatonal sobre el río Urola. Desde este lugar, después de salvar la regata de Narrondo por otro puente peatonal, se asciende al casco urbano de Zumaia.

Sale el Camino de Santiago de Zumaia subiendo por las calles Sorazu y Arritokieta, para alcanzar la ermita del mismo nombre y el cementerio. Recorre una zona agrícola en la que encontramos los caseríos del barrio Mardari, entre los que destaca el caserío Zubeltzuzar y la venta Santuaran, algo alejados del casco rural Mardari. Superado el caserío Usaberatza se accede al alto de Itziar donde destaca la iglesia de Nuestra Señora. El Camino continúa por la ermita de San Roque, hasta llegar al casco histórico de Deba.

La ruta jacobea abandona Deba siguiendo dos itinerarios. El primero es el de Sasiola, el más antiguo, que da acceso al Hospital y al convento del mismo nombre, hasta llegar a la iglesia de San Andrés de Astigarribia.

La otra variante es la del Calvario. Se sale de Deba por el puente de Mutriku. Cruza junto a los caseríos Buztiñaga y Pikoaga. Después, prosigue hasta ascender a la ermita del Calvario de Maia y de aquí se encamina hacia Aparain, pasando antes junto al caserío Eizagirre. Unificadas las dos variantes en Aparain, cerca de la estela del mismo nombre, continúa el Camino de Santiago en dirección a Olatz.

Tras dejar atrás la ermita de San Isidro, se llega a un cruce donde se toma una pista que se dirige hacia el collado Gorostolamendi, divisoria entre Bizkaia y Gipuzkoa. Rodea el Camino de Santiago, Jangoikomendi, para descender y pasar junto al caserío Damukorta y luego al caserío Arnoate y Sakoneta. Se avanza y, tras superar el caserío Amulategi, el Camino desciende bruscamente para llegar a la plaza de Markina, siendo alguno de los edificios singulares de la zona la torre de Barroeta y la ermita de San Miguel de Arretxinaga. Se sale hacia Gernika, después de de-

alderantz jotzen du, Erdotzako Andre Mariaren baseliza eta umildegia atzean utzita. Ibaia Kareaga zubiaren bidez gurutzatu, eta errekaren paralelo jarraitzen du, Iruzubietako gune txikira iritsi arte.

Bolibarrerantz abiatzen da mendi-bide batetik, Altzaga auzoa osatzen duten baserrietara iritsi arte. Bideak aurrera jarraitzen du, eta, Simon Bolibarren Museoaren ondotik pasaz, plazaraino iristen da. Gero, Ziortzako Kolegiatarantz egiten du, eta, han, erromesentzako ostatu bat ikus daiteke. Kolegiata atzean utzita, Gerrikaitzerako bideari ekiten dio; bidean, Gorontzugara muinoa eta Uriona auzoa zeharkatzen ditu.

Andra Mari elizak antzinako Gerrikaitz hiribilduaren sarrera adierazten du. Errepidean behera egiten da Munitibar aldera, eta, han, plaza zeharkatuko da, San Bizente Martiriren elizara iristeko. Gernikara bidean, elementu nabarmen batzuen ondotik pasatzen da; besteak beste, Urnatei, Bekoerrota eta Bulukua baserriak Munitibarren, eta Berriondo eta Zarra Mendatan. Zarra auzoan, San Pedro baseliza dago, bai eta Montalban dorrerako bidea ere. Bideak aurrera jarraitzen du mendi-mazelatik barna, antzinako galtzadaren bide-zati batera iritsi arte; berreskuratutako bide-zati horrek Zarra auzoa eta Arrantzuko elizatea lotzen zituen. Urdaibaiko hariztirik ederrena pasa eta gero, Artzubi zubira iristen da; hortik gora eginez, Elexalde gunera heltzen da, Arratzun.

Arratzuko Santo Tomas elizan, gurutze-bidea hartuko da, Golako ibaiaren ertzera arte; hortxe dago Olazarrako antzinako burdinola. Golako ibaia gurutzatuz, Marmiz auzora igotzen da. Ugari dira ibilbidea gurutzatzen duten baso-bideak, Ajangizko gunera iritsi aurretik. Hortik Gernika-Lumora jaisten da, Errenteriako antzinako portua izan zen lekura daraman errepidetik. Gernika-Lumoko monumentu-gunea zeharkatuz, Donejakue Bideak Zearretik jarraitzen du Lurgorri auzora arte; tartean, Mestikabaso izeneko lekutik pasatzen da.

Santa Luzia baselizatik abiatzen da Donejakue Bidea Errigoitirantz. Errigoitiko Pozueta auzoan dauden hainbat baserriren ondotik pasatzen da, eta, bertatik, Larrabetzura doan errepidea gurutzatzen du, Gerekizko San Esteban baselizara iristeko. Bertan, Eskerikara daraman bidea hartu behar da, eta Landotz eta Pepiena baserriak igaroko dira, hurrenez hurren; gero, Larrabetzurantz jarraituko du, Astoreka auzora iritsi arte. Han, desbideratu egin behar da, eta antzinako bide batetik jarraitzen du, Goikoelexaldera iritsi arte.

San Emeterio eta San Zeledonen eliza eta gurutzea atzean utzita, Larrabetzuraino jarraitzen du, eta, handik, Lezamarako bidea hartzen du. Kristo Gurutziltzatuaren baselizaren ondotik pasatuz, Zamudioko San Martin elizara iristen da. Elizatik gorantz egiten du Donejakue Bideak; autobiaren gainetik pasa, eta bide zahar bat hartzen du, Gaztanazabalaga baserriajar la ermita de Nuestra Señora de Erdotza y el humilladero del Santutxu. Se cruza el río por el puente Kareaga y se continúa paralelo al arroyo hasta llegar al pequeño núcleo de Iruzubieta.

Se dirige hacia Bolibar por una pista hasta llegar a los caseríos que forman el barrio Altzaga. El Camino sigue y, tras alcanzar el Museo de Simón Bolibar, se llega hasta la plaza para continuar hacia la colegiata de Ziortza, donde se encuentra una hospedería de peregrinos. Se deja la colegiata y se emprende camino hacia Gerrikaitz, pasando por el alto de Gorontzugarai y por el barrio de Uriona.

La iglesia de Andra Mari marca la entrada a la antigua villa de Gerrikaitz. Se baja por la carretera hacia Munitibar, donde se atraviesa la plaza para llegar a la iglesia de San Vicente Mártir. De camino a Gernika se pasa junto a una serie de elementos destacados como son los caseríos Urnategi, Bekoerrota y Bulukua en Munitibar y Berriondo y Zarra en Mendata. En Zarra se encuentra la ermita de San Pedro y el desvío a la torre de Montalban. Continúa el Camino a media ladera hasta encontrarse con un tramo recuperado de la antigua calzada que unía Zarra con la anteiglesia de Arratzu. Se atraviesa el robledal de más entidad de Urdaibai para llegar al puente de Artzubi, desde donde se asciende hasta el núcleo de Elexalde, en Arratzu.

En la iglesia de Santo Tomás de Arratzu se sigue el vía crucis hasta la ribera del río Golako, donde se encuentra la antigua ferrería de Olazarra. Tras cruzar el citado río se asciende hasta el barrio de Marmiz. Son numerosas las pistas forestales que cruzan la ruta antes de llegar al núcleo de Ajangiz. De aquí se baja a Gernika-Lumo, siguiendo la carretera que llega hasta la que fue la antigua zona portuaria de Errenteria. Tras atravesar la zona monumental de Gernika-Lumo, el Camino continúa por la calle Zearreta hasta el Barrio Lurgorri, atravesando la zona conocida como Mestikabaso.

Desde la ermita de Santa Luzia el Camino parte hacia Errigoiti. Se pasa junto a varios caseríos por el barrio Pozueta de Errigoiti, desde aquí se cruza la carretera que va hacia Larrabetzu para llegar a la ermita de San Esteban de Gerekiz. En este punto se toma un camino que lleva hacia Eskerika y se llega al caserío Landotz primero y al caserío Pepiena después, para continuar en dirección a Larrabetzu hasta el barrio de Astoreka, donde se toma un desvío que sigue por un antiguo camino hasta Goikoelexalde.

Tras dejar atrás la iglesia de San Emeterio y San Celedonio y el crucero, se continúa hacia el casco urbano de Larrabetzu para seguir después hacia Lezama. Se pasa junto a la ermita del Cristo Crucificado para llegar a la iglesia de San Martín en Zamudio. Desde la iglesia, asciende la ruta jacobea hasta pasar sobre la autovía y tomar un viejo camino que llega a las

ren hondarrak dauden lekura eramaten duena. Iturritxualde (Avril) mendira iritsi aurretik, Zamudiotarren Bidearen arrastoak daude; hortxe hasten da, zehazki, Bilbaorako jaitsiera.

Donejakue Bidea Arabella auzotik sartzen da Bizkaiko hiriburura; bertatik Begoñara jaisten da, Mallonako galtzadatik, eta, hala, Bizkaiko hiriburuko Santiago katedralera iristen da. Dendarikale kaletik jarraituz, itsasadarra zeharkatzen du San Anton Zubitik igaroz. Ibilbideak aurrera egiten du San Frantzisko eta Autonomia kaleetan barna, eta, Kobeta mendia igaro eta gero, Kadagua ibaiaren gaineko Deabruaren Zubiarekin egiten du bat; hori da, hain zuzen, Bilbao eta Barakaldoren arteko muga naturala.

Urgozo auzoan, errepide txiki bat hartu behar da; hura hartu eta berehala, Santa Ageda baselizara doan Erdi Aroko galtzada ikus daiteke. Hortik Gurutzeta auzora jaisten hasten da, eta, azken horretatik, Retuerto auzora. San Bizente auzora arte jarraitzen du bideak, Galindo ibaiaren ertzera arte, eta hura oinezkoentzako zubi baten bidez gurutzatzen du. Donejakue Bidea Urbinagako gunera arte iristen da, eta Sestao zeharkatuz udaletxera heltzen da; han bira egin eta gero, Portugaleteko Santa Maria elizarantz abiatzen da.

Portugaleten, Donejakue Bideak Ortuellarantz egiten du, eta, handik, La Arena hondartzara jarraitzen du. Bide-zati hori garai batean trenak zuen bidetik igarotzen da; trenbidea inguruko meatzeetatik ateratako minerala garraiatzeko erabiltzen zuten. Behin Zierbenara iritsita, Donejakue Bidea Barbadun ibaiaren gaineko metalezko zubira arte iristen da; zubi horretatik ibaia zeharkatu daiteke, Pobeñara arte. Laguntzako Andre Mariaren baselizaren ondotik pasatzen da, eta eskailera batzuetatik gora igotzen da meategiko trenaren antzinako bidetik; La Arenako zamatzeko tokian amaitzen da. Egun, ibilbide hori «bide berdea» bihurtu da, eta Cobaronen amaitzen da, Euskadiko Donejakue Bidearen amaieran. Leku horretatik aurrera jarraituz, Kantabriako lurretan sartzen da, Onton kostaldeko udalerritik barna.

Kostaldeko Donejakue Bideak adar bat du; hain zuzen, Kadagua ibaiari jarraituz, Bilbao Bizkaiko hiriburua Frantziako Donejakue Bidearekin lotzen du, Burgosko probintzian, zehazki.

Donejakue Bidearen ibilbide horrek Urgozo auzoan (Barakaldo) agurtzen du Kostaldeko Donejakue Bidea, Deabruaren Zubitik barna Kadagua ibaia zeharkatu eta gero. Hortik Irauregi auzorantz abiatzen da (Alonsotegi), eta, berriro, Kadagua ibaia gurutzatuz (Gidako Ama Birjinaren baselizara arte), Güeñesko La Cuadra auzora iritsiko da. Gero, Soduperantz egiten du, eta Iturriagako San Martin baselizara iritsiko da; bideari jarraituz, Güeñesko udaletxera eta Santa Maria elizara helduko da. Aranguren auzora arte jarraitzen du, eta hortik Zallako herrigunera. Zariketeko San Pedro baselizarako bidea albo batera utziz,

ruinas del caserío Gaztanazabalaga. Antes de acceder al Monte Avril se encuentran los restos de la calzada de los Zamudianos. Es entonces cuando comienza el descenso hacia Bilbao.

El Camino entra en la capital vizcaína por el barrio de Arabella, desde donde baja hacia Begoña, siguiendo por las calzadas de Mallona y llegando a la Catedral de Santiago de la capital vizcaína. Continúa por la calle Tendería para cruzar la ría por el puente de San Antón. Avanza el recorrido por las calles San Franciso y Autonomia y, tras pasar el monte Kobetas, se encuentra con el puente del Diablo sobre el río Kadagua, frontera natural entre Bilbao y Barakaldo.

En el barrio Urgozo se toma la pequeña carretera que enseguida descubre la calzada medieval que asciende a la ermita de Santa Águeda. Desde aquí comienza a bajar hacia el barrio de Cruces y desde éste al barrio de Retuerto. Continúa hasta el barrio de San Vicente para descender a la ribera del río Galindo, que cruza por un puente peatonal. Llega el Camino a la zona de Urbinaga, atravesando Sestao hasta alcanzar el Ayuntamiento, donde gira y de allí se encamina hacia la iglesia de Santa María de Portugalete.

En Portugalete el Camino de Santiago se dirige hacia Ortuella y desde allí, a la playa de La Arena. Este tramo discurre por el antiguo trazado de las vías de ferrocarril que transportaba el mineral extraído de las minas de la zona. Una vez alcanzado Zierbena, el Camino llega hasta el puente metálico sobre el río Barbadun que permite cruzar a Pobeña. Allí discurre junto a la ermita de Nuestra Señora del Socorro y sube por unas escaleras hasta el antiguo trazado del ferrocarril minero que culmina en el cargadero de La Arena. Hoy en día este trazado ha sido convertido en una vía verde que finaliza en Covarón, final del Camino de Santiago en el País Vasco. A partir de ese punto se abre paso hacia tierras cántabras, a través de la localidad costera de Ontón.

El Camino de la Costa cuenta con un ramal que, desde Bilbao, siguiendo el río Kadagua, enlaza la capital vizcaína con el Camino francés en la provincia de Burgos.

La ruta jacobea se despide del Camino de la Costa en el barrio de Urgoso (Barakaldo) tras haber cruzado el río Kadagua por el puente del Diablo. Desde aquí se encamina hacia el barrio de Irauregi (Alonsotegi) y, tras cruzar de nuevo el río Kadagua hasta la ermita de Nuestra Señora de la Guía, se llega al barrio de La Cuadra, ya en Güeñes. Entonces se dirige hacia Sodupe y llega a la ermita de San Martín de Iturriaga desde donde alcanza el Ayuntamiento de Güeñes y la Iglesia de Santa María. Continúa hasta el barrio de Aranguren y de aquí al centro urbano de Zalla. Tras dejar a un lado el desvío a la cercana ermita de San

Bolunburuko burdinolaren ingurura jotzen du. Balmasedara doan bidea hartzen du, Kadagua ibaiaren paralelo, Herrerako garai bateko eskoletara iritsi arte, eta, azkenean, Balmasedako udalerrian sartzen da, Madalena auzotik; han, galtzada zaharraren hondarrak aurki daitezke. Berehala sartzen da Balmasedako alde zaharrean; hiribildua atzean uzten da Zubi Zaharra gurutzatuz, Bizkaia eta Gaztela arteko pasabide zaharra, hain zuzen. Hala, Burgoserako bidea hartzen du, eta, han, Mena Harana zeharkatu eta gero, Frantziako Donejakue Bidearekin egiten du bat.

B) San Adriango Tunelaren Bidea.

Barnealdeko Donejakue Bideak Euskadin duen pasabidea Iberiar penintsularen iparraldeko komunikazio-ardatz nagusietako bat izan da erromatar garaitik. Galtzadaren hondarrak eta antzina artzaintzarako erabiltzen zituzten bideen aztarnek frogatzen dute oso garrantzitsuak zirela Santiagora egiten zituzten erromesaldietan; bertatik ezinbestean pasa behar zuten, Irundik barna Frantziako Donejakue Bidearekin bat egiteko (bai Errioxan, bai Burgosen).

Hasierako trazadura hura, Hernanitik igaro eta gero, leku garaietatik pasatzen zen, muinoz muino. XIII. mendearen hasieran, Alfontso VIII.a errege zela, Gipuzkoa Gaztelaren mende geratu zen, eta, orduan, hiribildu gotortuak eraiki zituzten Oria haranean (esaterako, Tolosa, Ordizia eta Segura); hiribildu horiek udalerrien alde zaharrak dira egun. Beraz, ibilbide honek gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen, Kostaldeko Bidearen kaltetan. Oriaren arrotik igarotzen den bide hori errazagoa zen, eta leku garaiak eta muinoak saihesten zituen; hala ere, derrigorrean egin behar zen San Adriango pasabidera igotzeko ahalegina. Bide-zati hori laburra zen, baina baita bihurria ere; Arabako Lautadako bide gozoetara iritsi aurretik gainditu beharreko azken proba.

Bidaiari batzuen lekukotasunek ez dute zalantzarik sortzen. Agian, Manierrek errealitate puztuko zuen San Adrian «munduko mendi garaienetako bat da» adierazi zuenean bere «Voyage a St. Jacques de Compostelle» liburuan (1730); hala ere, ezin da ukatu haitzean zulatutako pasabide horrek bidaiariei zirrara sortzen ziela.

Ibilbidea Bidasoa ibaiaren gaineko zubian hasten da, Santiago zubian. Donejakue Bideak Irunen duen trazadura hainbat ondare-elementuren ondotik pasatzen da; besteak beste, Junkaleko Andre Mariaren eliza, San Juan Harria plaza eta udaletxea nabarmendu behar dira. Adar batek Kostaldeko Bidearekin lotzen du ibilbide hori, Hondarribian, zehazki; leku horretara, halaber, Behobian hasten den ibilbidea iristen da.

Barnealdeko ibilbidea Oiartzunerantz abiatzen da, udalerriko gune nagusira, Elizaldera, zehazki; handik, Iturriotz auzorako bidea hartzen du. Ibilbideak aurrera jarraitzen du, Sorozarreta, Oiartzabal eta Frantzesillagaberri baserrien ondotik pasatuz, eta, gero, Astigarragako Benten errepidera igotzen da; han

Pedro de Zarikete, se encamina a las inmediaciones de la ferrería de Bolunburu. Continúa hacia Balmaseda, paralelo al curso del río Kadagua, hasta llegar a las antiguas escuelas de la Herrera, y finalmente entra en el término municipal de Balmaseda, por el barrio de La Magdalena, donde existen restos de la antigua calzada. En breve se adentra en el casco histórico de Balmaseda, villa que se deja atrás cruzando el Puente Viejo, antiguo paso entre Bizkaia y Castilla, tomando entonces dirección Burgos, donde conecta con el Camino francés tras atravesar el valle de Mena.

B) Camino del Túnel de San Adrián.

La ruta interior del Camino de Santiago a su paso por el País Vasco ha sido uno de los más importantes ejes de comunicación del norte peninsular desde época romana. Restos de calzadas y vestigios de ancestrales caminos de pastoreo atestiguan que tenía una importancia capital en las peregrinaciones a Santiago. Era paso obligado para los que querían, desde Irun, conectar con el Camino francés en La Rioja o en Burgos.

Este primitivo trazado, una vez alcanzado Hernani, discurría por los altos, de collado en collado. Cuando a principios del siglo XIII Gipuzkoa quedó bajo el mandato castellano, con el rey Alfonso VIII, se fundaron a lo largo del valle del Oria villas fortificadas como Tolosa, Ordizia y Segura, hoy cascos históricos, lo que otorgó a esta vía una importancia creciente, en detrimento de la ruta más costera. Este camino que discurre por la cuenca del Oria era más asequible y eludía la ascensión a los altos y collados, aunque no se pudiera evitar el esfuerzo de subir hasta el paso de San Adrián, tramo corto pero tortuoso que constituía la última prueba antes de llegar a los más acogedores caminos de la Llanada alavesa.

Los testimonios de algunos viajeros no dejan lugar a la duda. Tal vez exageraba Manier al considerar en su «Voyage a St. Jacques de Compostelle» de 1730 que San Adrián era «una de las más altas montañas del mundo», pero es que, sin lugar a dudas, este paso excavado en la roca impresionaba a los viajeros.

La ruta parte del puente de Santiago sobre el río Bidasoa. En Irun destacan una serie de elementos patrimoniales junto a los que discurre el trazado del Camino como son la iglesia de Nuestra Señora del Juncal, la plaza San Juan Harria y el consistorio municipal. Un ramal une este trazado con el del Camino de la costa en Hondarribia. En ese lugar además llega la ruta que se inicia en Behobia.

El trazado del interior se dirige a Oiartzun, concretamente a Elizalde, el núcleo principal del municipio, desde donde se encamina hacia el barrio Iturriotz. Continúa su recorrido pasando junto a los caseríos Sorozarreta, Oiartzabal y Frantzesillagaberri para finalmente ascender a la carretera de Ventas de

idien probaleku zahar bat dago. Segidan, Manesenea baserrirako bidea hartzen du; inguru horretatik Santiagomendiko baselizara igotzen da, Donejakue Bidearen erreferentzia garrantzitsua muinoaren goialdean. Bertatik, Artola eta Arraspiñe baserrietara iristen da. Oinezkoentzako bide bat abiatzen da hortik, eta, Agustinatarren komentu ondotik pasatuta, Argiñeta bidera jaisten da; Santio Zaharreko bidean amaitzen da, Astigarragaraino eramango gaituen bidean.

Hernani/Donostia-San Sebastián tranbiaren ibilbide zaharretik jarraitzen du Oialumeko bidera eta Zinkoenea plazara arte; jada, Hernaniko alde zaharrean, udalerriko udaletxera iristen da.

Udaletxeko arkutik igaroz, Donejakue Bideak Hernaniko alde zaharra utzi eta Gurutze Santuaren Umildegirantz jarraitzen du; handik, Urnietako herrigunerako bidea hartzen du. Gero, Plazaolako tren zaharraren trazadura erabiltzen du, eta bertatik jarraitzen du Andoaingo herrigunera iritsi arte. Hiribildu horretan, udaletxerantz eta San Martin de Toursen elizarantz abiatzen da. Ibilbideak Andoaindik jarraitzen du, eta Leitzaran ibaia zeharkatzen du, Oria ibairaino iritsi baino metro batzuk lehenago; hala, Gurutze Santuaren baselizara iristen da. Andoaindik irteten da Izturitzagatorrearen aurretik pasatuz, eta Villabonarako bidea hartzen du.

Ibilbidea Apakintza eta Artolaenea baserrien ondotik pasatzen da, Adunaranzko norabidean. Aurrerago, Galarraga baserria igarota, Adunako gunera iristen da, eta, bertatik, Iparragirre baserria eta Gurutze Deunaren baseliza pasa eta gero, Villabona udalerrian sartzen da. Handik, aurrerantz jarraitzen du Zizurkilera arte, eta, bidean, Zubimusu eta Zubiberri zubiak gurutzatzen ditu. Hurrengo kilometroetan, ibilbidea trenbidearen paralelo doa, Oria ibaiaren ertzean dauden baratzeen eta zelaien artetik; gero, Anoetatik eta Hernialdetik barna jarraitzen du, Tolosako Trianguloa plazara (lehen, Foruen Plaza) iritsi arte.

Tolosako alde zaharra atzean utziz Oria ibaia gurutzatuko du, eta, haran sakonetik jarraituz eta Kristo Santuaren baselizaren aurretik pasatuz, Alegiaranzko bidea hartuko du.

Alegiako alde zaharra zeharkatu eta gero, Ikaztegietara abiatuko da, Pilar baseliza zeharkatuz. Legorreta da hurrengo herria, eta, bertara, Oria gaineko zubitik sartzen da, Torreko Zubitik. Herrigunea igaroz, Itsasondora iritsiko gara. San Juan baseliza pasa eta metro gutxira, izen bereko auzora joateko bidea hartzen du. Zabale bidean barrena, Foruen pasealekuraino iritsiko da, Ordiziara. Alde zaharra atzean utziz, hurrengo herrira abiatzen da, Beasainera. Donejakue Bidea udalerri horretako herrigunetik pasatzen da, Igartzako monumentu-multzora heldu arte. Olaberriako herrigune txikira iritsi aurretik, Altamira eta Garitain baserrien ondotik pasatzen da.

Astigarraga, donde está ubicado un antiguo probadero de bueyes. A continuación se prosigue hacia el caserío Manesenea. Desde este paraje se asciende a la ermita de Santiagomendi, importante referencia jacobea ubicada en lo alto de la colina. De allí se llega a los caseríos Artola y Arraspiñe, lugar en el que se inicia una senda que, tras pasar junto al convento de las Agustinas, desciende al camino de Argiñeta hasta finalizar en el camino de Santio Zaharra que nos conduce a Astigarraga.

Se continúa por el antiguo trazado del tranvía Hernani/Donostia-San Sebastián, hasta el camino de Oialume y hasta la plaza Zinkoenea y, ya en el casco histórico de Hernani, llega al Ayuntamiento de esta localidad.

Atravesando el arco del Ayuntamiento el Camino deja el casco histórico de Hernani y se dirige hacia el humilladero de Santa Krutz y de allí al casco urbano de Urnieta. Utiliza después el trazado del antiguo tren del Plazaola, que no abandona hasta llegar al casco urbano de Andoain. En esta villa se dirige hacia el Ayuntamiento y a la iglesia de San Martín de Tours. Prosigue la ruta por Andoain, cruzando el río Leitzaran unos metros antes de su desembocadura en el Oria, llegando a la ermita de Santa Gurutze. Sale de Andoain, pasando por delante de Izturitzagatorrea, para continuar hacia Villabona.

La ruta supera los caseríos Apakintza y Artolaenea en dirección a Aduna. Más adelante, superado el caserío Galarraga, alcanza el núcleo de Aduna, pasando junto al caserío Iparragirre y la ermita de Santa Gurutze, para entrar después en la localidad de Billabona. De allí avanza hasta el término municipal de Zizurkil, atravesando los puentes Zubimusu y Zubiberri. En los siguientes kilómetros el trazado discurre paralelo a las vías del tren, entre huertas y prados de la ribera del Oria, y continúa por Anoeta y Hernialde, hasta llegar a la plaza de los Fueros en Tolosa.

El Camino deja atrás el casco histórico de Tolosa, cruzando el río Oria, para dirigirse hacia Alegia, siguiendo el fondo del valle y pasando por delante de la ermita del Santo Cristo.

Se atraviesa el casco histórico de Alegia y se dirige hacia Ikaztegieta, franqueando la ermita del Pilar. Legorreta es la siguiente localidad, a la cual se accede a través del puente Torreko zubia, sobre el río Oria. Se supera el casco urbano, llegando hasta Itsasondo. Pocos metros después de la ermita de San Juan, se encamina hacia el barrio del mismo nombre. Por el camino de Zabale alcanza el Paseo de los Fueros, ya en Ordizia. Una vez dejado atrás el casco histórico se dirige hacia la vecina Beasain. Recorre el Camino de Santiago el casco urbano de esta localidad hasta el conjunto monumental de Igartza. Antes de llegar al pequeño núcleo urbano de Olaberria se pasa junto a los caseríos Altamira y Garitain.

Olaberriatik Idiazabalera bidean, hainbat baserri igarotzen ditu, Aldasoro, Oiarbide eta Nafarragasti, besteak beste; halaber, Artsugarats galtzadatik barna, Gurutzetako baselizaren ondotik pasako da. Idiazabalen, Donejakue Bidea Gurutze Deunaren umildegitik igarotzen da, eta, aurrerago, Urrutikoetxea baserriaren ondotik; bertan hasten da Erdi Aroko Segura hiribildurantz eramango gaituen beheranzko bidea. Bidea Seguran sartuko da Beheko Portaletik, eta Kale Nagusitik barna jarraituko du; Zegamaranzko bidean, Saiatzeko bide-adarrarekin egingo du bat.

Adar hori Hernanin hasten da, eta Donejakueren bide interesgarria da, Gipuzkoako probintziaren erdialdea zeharkatzen duena. Hernaniko alde zaharretik irtenez, Donejakue Bidea Santa Barbara auzora iristen da. Hortik gora igota, Agirre baserrira iritsiko gara; gero, Lasarte-Oriako hilerritik igaroko da, eta, Zabaleta auzoa atzean utzita, Lasarte-Oriara jaisten da. San Pedro elizatik Zubietako gunerantz abiatzen da; han, Santiago eliza dago. Zubietako alde zaharra pasa eta gero, Letabide bidetik gora egiten du Olaikogainara arte, eta, handik, Zarate Benta zaharrerako bidea hartzen du (egun zaharberrituta dago). Saskarate baserriaren ondotik pasatzen den bideari jarraituz, Iturriotzeko bentara iristen da, eta, metro batzuk behera eginez, San Juan baselizara; inguru horretan, izen bereko iturria dago.

Baselizaren ondotik abiatzen da Zelatungo lepora igotzeko bidezidorra; hori Ernioren gailurraren ondoan dago. Bide zahar batek beherantz egiten du, haran sakonera, Bidaniko herriguneraino; handik Albizturgo Argisain auzorantz jarraitzen du, Santutxoko Bentaren ondotik pasatuz.

Elizaren aurretik abiatzen da Larrañaga baserrira daraman bidea, eta, hortik, Domiko mugarria dagoen muinora iritsiko gara; mugarri horrek mugatzen ditu Bidegoian, Beizama, Beasain eta Itsasondo udalerrien mugak. Bideak Arrapaitz iturriaren ondotik jarraitzen du, eta, segidan, Larrarteko muinora jaisten da. Laster batean, Otegi baserrirantz eta San Gregorio baselizarantz egiten du, eta, gero, jaitsi egiten da, Mandubiko bentara eta muinora.

Ezkio-Itsason, Mandubizar baserriaren aurretik pasatzen da, eta Kizkitzako Andre Mari baselizara arte iristen da (marinel-deboziokoa). Hortik behera egiten du Arteaga eta Aranaga baserrien aurretik igaroz, eta, azkenik, Ormaiztegiko kaleetara iristen da. San Andres elizaren atzeko aldetik itzalpeko plazara heltzen da, Zumalakarregi Museoaren aurrean. Ibilbidea Iparraldeko Trenbidearen geltokirantz abiatzen da, eta, han, meategiko trenaren antzinako bidea hartzen du, Lierniko Andre Mari baselizara iritsi arte. Antzinako bide batetik jaisten da Andramaiztegi baserriraino, eta, hala, Mutiloako herrigunera iristen da. Herrigunetik gora egiten du errepide batetik, eta Zeraingo plazara iristen da; han, antzinako galtzada hartuta, Seguraraino heltzen da. Seguran, Oriaren haranetik barna gora doan ibilbidearekin egiten du bat.

De Olaberria a Idiazabal cruza frente a una serie de caseríos como son Aldasoro, Oiarbide, Nafarragasti y la ermita de Gurutzeta a la que se accede por la calzada de Artsugarats. En Idiazabal el Camino pasa junto al humilladero de Santa Krutz y más adelante al caserío Urrutikoetxea, punto en el cual comienza el descenso hasta la villa medieval de Segura. Entra el Camino en Segura por el Portal de Abajo, continúa por la calle Mayor para, en su discurrir hacia Zegama, unirse con el ramal de Saiatz.

En Hernani se inicia el citado ramal, interesante ruta jacobea que recorre el centro de la provincia de Gipuzkoa. Tras dejar el casco histórico de Hernani, el Camino llega al barrio de Santa Barbara. Asciende y de aquí al caserío Agirre, pasa luego por el cementerio de Lasarte-Oria y, dejando atrás el barrio Zabaleta, desciende a Lasarte-Oria. Desde la iglesia de San Pedro se dirige al núcleo de Zubieta, donde se alza la iglesia de Santiago. Superado el casco de Zubieta, asciende por el camino Letabide hasta Olaikogaina y de allí hasta la antigua Venta Zarate, hoy renovada. Prosigue por el camino que pasa al lado del caserío Saskarate, alcanza la venta de Iturriotz y, unos metros más abajo, la ermita de San Juan, donde se encuentra la fuente del mismo nombre.

Junto a la ermita parte el sendero por el que se acomete la ascensión al collado de Zelatun, junto a la cumbre del Ernio. Un antiguo camino desciende al fondo del valle hasta el casco urbano de Bidania desde donde se prosigue, pasando al lado de la venta de Santutxo, hacia el barrio Argisain de Albiztur.

Frente a la iglesia parte la ruta que conduce hasta los caseríos Larrañaga y, de aquí, hacia el collado donde se encuentra el mojón de Domiko, límite de los municipios de Bidegoian, Beizama, Beasain e Itsasondo. El Camino continúa junto a la fuente de Arrapaitz para seguidamente bajar al collado Larrarte. Poco después, se dirige hasta el caserío Otegi y a la ermita de San Gregorio para descender a la venta y al alto de Mandubia.

Ya en el municipio de Ezkio-Itsaso, pasa por delante del caserío Mandubizar y llega a la ermita Andre Mari de Kizkitza, de advocación marinera. De ahí desciende, cruzando frente a los caseríos Arteaga y Aranaga, antes de finalizar en las calles de Ormaiztegi. Por la parte posterior de la iglesia de San Andrés se accede a la sombreada plaza frente al museo de Zumalakarregi. Se encamina la ruta a la estación del ferrocarril del Norte y de allí toma el trazado de un antiguo ferrocarril minero por donde avanza hasta la ermita Andre Mari de Lierni. Desciende por un antiguo camino hasta el caserío Andramaiztegi, alcanzando el núcleo de Mutiloa. Desde aquí se asciende por la carretera, para concluir en la plaza de Zerain y dirigirse por la antigua calzada hasta Segura donde se unirá con la ruta que remonta el valle del Oria.

Ibilbideak Zegamarantz doan errepidearen paralelo jarraitzen du. Herrigunea zeharkatu eta gero, Donejakue Bidea Gurutze Santuaren baselizarantz abiatzen da; handik hasten du San Adriango pasabidera iristeko igoera. Hainbat bidegurutze pasa eta gero, Iruetxeta baseliza eta Buenabista baserria igaroko ditugu, eta, aurrera jarraituz, Sancti Spiritus baselizara iritsiko gara.

Galtzadan aurrera, Altzaniako partzuergora iristen da bidea; handik San Adriango Tunela ikusten da, urrunean. Tunelaren barruan izen bereko baseliza dago. Txukun gorde den Erdi Aroko galtzadatik Eskaratzako ingurura heltzen da, eta, iturri bat ezkerrean utziz, behe-ibar batean sartzen da; handik, Portugainako lepora igotzen da, Gipuzkoa eta Araba arteko mugara.

Lepotik beheranzko bideari ekiten zaio, eta Aistrako San Julian eta Santa Basilisa baselizara heltzen da; eskuinetara, gurutze-bide bat dago, Zalduondora eramaten duena. Udalerri horren irteeran, Lazarragatarren armarria duen gurutze polit bat eta zubi bat ikus daitezke. Hurrengo udalerrira iritsi aurretik, San Millan baseliza dago.

Bideak Erdoñana zeharkatzen du, Igokunde Andre Mariaren eliza goialdean duela. Agurainera iritsi baino lehen, beste hainbat lekuren aurretik pasatzen da: San Lazaro eta Madalenaren ospitale zaharra (egun, etxe pribatua), Bentaberriko edo Andre Mariako gurutzea eta, aurrerago, Zadorra gaineko zubia.

Aguraingo hiribildu harresitura iparraldetik heltzen da, eta, bertan, herrixka harresi artean babesten duten bi eliza gotortuetako bat ikus daiteke: Andre Maria eliza; udalerria mendixka baten gainean dago. Donejakue Bideak hiribildua utziko du arkupedun San Juan plazatik eta Erregearen Ataritik irtenda, eta Gazeorantz joko du. Gazeon San Martingo eliza ikus daiteke, bere margolan interesgarriekin; udalerria alderik alde pasa eta gero, zelai arteko bide asfaltatu batetik irteten da, Ezkerekotxara heldu arte.

Ibilbideko hurrengo erreferentzia-gunea mendixka gainean dagoen irudi zuta da, Henaioko Gaztelua; Burdin Aroko herrixka zen, Alegria-Dulantzi oinean zuela. Erromatarren bidetik jarraitzen du, Aiarako Andre Mariaren baselizara heldu arte. Bideak Alegria ibaiaren paralelo jarraitzen du, antzinako eremu batera heldu arte; tenplu erromatar baten arrastoak daude oraindik, eta egun Arraraineko San Juan baseliza dago. Bertatik Burgelura jaisten da.

Burgeluko udalerria zeharkatzen du, Villafrancara bidean. Aurrera jarraituz, Argandoñara iristen da. Udalerri txiki hori utziz, Donejakue Bidearen ibilbide horrek Mendiluzko bidearekin egiten du bat, eta Askartzarantz jarraitzen du, Arkaiara daraman bidera atera arte; Arkaian elizaren aurretik pasatzen da. Herritik ateratzean, Donejakue Bidea Vitoria-Gasteizko erdigunera iritsiko da.

La ruta continúa paralela a la carretera que se encamina hacia Zegama. Tras atravesar el casco urbano, el Camino de Santiago se dirige a la ermita Gurutze Santua desde donde comienza la ascensión hacia el paso de San Adrián. Tras varios cruces alcanza la ermita de Iruetxeta y el caserío Buenabista y, posteriormente, la ermita del Sancti Spiritus.

Se entra en la Parzonería de Altzania por una calzada, divisando a lo lejos el túnel de San Adrián de Leizarrate, que acoge en su interior la ermita del mismo nombre. La calzada medieval, bien conservada, alcanza el paraje de Eskaratza, y, tras dejar a la izquierda una fuente, se adentra en una vaguada para ascender al collado de Portugaina, límite entre Gipuzkoa y Álava.

A partir de aquí se desciende y se llega a la ermita de San Julián y Santa Basilisa de Aistra. A continuación, a la derecha, se alza una vía crucis que conduce a Zalduondo. A la salida de esta localidad se encuentra el bello crucero con el escudo de los Lazarraga y un puente. Antes de llegar a la siguiente población aparece la ermita de San Millán.

Se atraviesa Ordoñana con la iglesia de Nuestra Señora de la Ascensión en posición cimera. Antes de alcanzar la villa de Salvatierra, se pasa por delante del antiguo hospital de San Lázaro y la Magdalena, hoy casa privada, el crucero de Bentaberri o Santa María y, más adelante, el puente que vadea el río Zadorra.

Se accede a la villa amurallada de Salvatierra, asentada sobre un cerro desde el norte, donde se levanta una de las dos iglesias fortaleza, Santa María, que custodian el caserío intramuros. El Camino abandona la villa por la plaza porticada de San Juan y Portal del Rey, hacia Gazeo. Tras atravesar la población donde se alza la iglesia de San Martín, con sus interesantes pinturas, se sale por una vía asfaltada que discurre entre campos de labor hasta enlazar con Ezkerekotxa.

En el recorrido, el siguiente punto referencial es la enhiesta figura del cerro, el Castillo de Henayo, poblado de la Edad del Hierro, con Alegría-Dulantzi al pie. Se continúa por el llamado camino de los romanos, que llega a la ermita de Nuestra Señora de Aiala. Este camino discurre de manera paralela al canal del río Alegría, hasta alcanzar un antiguo despoblado del que persiste un templo románico, hoy ermita de San Juan de Arriaran, desde donde se desciende a Elburgo.

Se atraviesa esta población de Elburgo rumbo a Villafranca. Tras superarla se llega a Argandoña. Al abandonar esta pequeña población, se incorpora la ruta jacobea al camino de Mendiluz y se dirige hacia Askartza para seguir y desembocar en el ramal carreteril que lleva a Arkaia, donde se pasa por delante de la iglesia. Tras abandonar esta población, el Camino desemboca en el centro de Vitoria-Gasteiz.

Andre Mari Zuriaren plazako gune garrantzitsuenera iristean, Erdi Aroko hirigunera eta Santa Mariaren katedral zaharrera igoko da. Bideak Vitoria-Gasteiz inguratuko du Armentiara iritsi arte. Udalerri horretatik irtetean, erromesak Gometxarantz eramango ditu Bideak, eta, behin parrokia-eliza igarota, Subilla-Gasteizera iritsiko da; han Simon de Anda Salazar landa-jauregia dago, eta, ondoan, gotorleku bat.

Bidea pinudi eta erkamezti artetik igarotzen da, San Migeleko atakaraino, eta, azkenean, Villanueva de la Ocara iritsiko da. Udalerria alderik alde pasatuz, La Puebla de Arganzonerako bidean jarraitzen du; azken hori, hain zuzen, Condado de Treviñoren baitan sartzen da (Burgosko probintzia, Gaztela eta Leon). Ospitale zaharra eta baseliza atzean utziz, udalerri horretatik irteten da, eta Auritzera abiatzen da. Herria zeharkatu eta gero, erromatarren eta erromesen bide zaharra hartzen du; bertan, iturri zahar bat eta garbitegia ikus daitezke, Estavillo udalerriaren atarian. Leku horretan, Donejakue Bideak bi ibilbide egiteko aukera ematen du: bata, Errioxara gerturatzen dena, eta, bestea, Burgoserantz abiatzen dena.

Errioxako lurretara iristeko, Donejakue Bideak Lacervillara darama lehenik, eta, handik, Berantevillara. Ez da herrigunetik pasatzen; hau da, inguratu egiten du, eta hilerriaren aurretik igarotzen da. Aurrera jarraituz, Zambranaranzko bidea hartzen du; han, Santa Luzia parrokia-eliza ikus daiteke. Atzean, gurutze polit bat utzi eta Errekako Benta zaharraren hondarretara iristen da. Aurrerago sartuko da Arabako Errioxako lehenengo udalerrian, Gatzaga Buradonen; hala ere, ez da harresien bidez ondo babestuta dagoen alde zaharreraino sartuko. La Loberako antzinako ibilbidetik jarraitzen du, Conchas de Haroko pasabide mehar eta arriskutsua saihestuz. La Loberako mendatera iristean, beheranzko bidea hartzen du, Briñasera arte. Donejakue Bidearen ibilbidean sartzen den «La Picota» elementu arkitektoniko eta jurisdikzional politaren aurretik pasatzen da; elementu horrek, zehazki, Euskadiko eta Errioxako autonomia-erkidegoen muga adierazten du. Briñas Errioxako udalerrian, Frantziako ibilbidearekin egiten du bat, eta, 24 kilometro eginez, Santo Domingo de la Calzadara iristen da.

Beste ibilbideak, La Puebla de Arganzonetik abiatzen denak, Miranda de Ebrora darama. Bide laburra da, eta, mendebalderanzko ibilbidean, Arabako bi ibai garrantzitsuenetakoak zeharkatzen ditu, bi zubi ederren bidez: Zadorra eta Baias.

Estavillo inguratu eta gero, Armiñonerantz jarraitzen du; han, San Andres eliza eta Montoya-Urbina jauregia daude. Etxe arteko paisaia meharrak Erdi Aroko zubi batera darama; bidean hainbat bazterbide daude. Leku horretatik Rivabellosara jaisten da, eta, udalerritik irtetean, Baias ibaiaren gaineko zubira iristen da; egitura sendoa eta gogorra da, eta, goraxeago, errotako presaren horma lodiak babesten du. Ibilbideak Araba eta Burgos arteko mugara arte jarraitzen

Alcanzado el punto neurálgico de la plaza de la Virgen Blanca, asciende hacia el casco medieval y a la catedral vieja de Santa María. Bordea el Camino la ciudad de Vitoria hasta llegar a Armentia. La salida de esta localidad encamina al peregrino hacia Gometxa y, una vez traspasada la iglesia parroquial, se llega a Subijana de Álava, donde se sitúa el palacio rural Simón de Anda y Salazar y, junto a él, una fuente.

El Camino se adentra entre pinos y quejigos, alcanzando el portillo de San Miguel, y se llega a la población de Villanueva de la Oca que atraviesa para continuar a la localidad de La Puebla de Arganzón, perteneciente al condado de Treviño (provincia de Burgos, Castilla-León). Se sale de este municipio, tras dejar el antiguo Hospital y la ermita, para dirigirse hacia Burgeta. Se atraviesa este pueblo y se toma la vieja vía de los romanos o de los peregrinos, en la que se localiza una antigua fuente y lavadero, antesala de la población de Estavillo. Aquí el Camino se divide en dos posibles rutas: la que se aproxima a La Rioja y la que se dirige hacia Burgos.

Para llegar a tierras riojanas el Camino conduce a Lacervilla y, posteriormente, a Berantevilla. No entra en el casco de esta villa sino que lo bordea por delante del cementerio hacia Zambrana con su iglesia parroquial de Santa Lucía. Deja atrás un sencillo crucero, llegando a las ruinas de la antigua Venta del Río. Más tarde se adentra en la primera población de La Rioja alavesa, Salinillas de Burandón, aunque sin llegar a tocar su casco histórico, bien defendido por murallas. Prosigue por la antigua ruta de La Lobera, que evita el angosto y peligroso paso de las Conchas de Haro. Alcanza el portillo de la Lobera y posteriormente desciende hasta Briñas, pasando por el bello elemento arquitectónico y jurisdiccional de «la picota», situada sobre la ruta jacobea y que anuncia el límite de las Comunidades Autónomas del País Vasco y La Rioja. Desde la localidad riojana de Briñas, se enlaza con la ruta francesa, llegando tras 24 kilómetros a la localidad de Santo Domingo de la Calzada.

El otro camino, que parte de La Puebla de Arganzón, conduce a Miranda de Ebro. Es éste un camino corto que, en su recorrido hacia el oeste, atraviesa los cursos de dos de los ríos más importantes de Álava, el Zadorra y el Bayas, gracias a dos magníficos puentes.

Tras bordear Estavillo se sigue hasta Armiñón donde se encuentra la iglesia de San Andrés y el palacio de Montoya-Urbina. Un angosto pasaje entre casas lleva al puente de origen medieval en cuyo recorrido aparecen distintos apartaderos. De allí se desciende a Rivabellosa, que abandona para alcanzar el puente sobre el río Bayas con su sólida y firme estructura defendida aguas arriba por el grueso muro de la presa del molino. El recorrido continúa hasta el límite en-

du, Miranda de Ebroren inguruetan; hain zuzen, bertan ematen zaio amaiera Donejakue Bideari, zehazki Gipuzkoako eta Arabako lurrak zeharkatzen dituen San Adriango Tunelaren ibilbideari. Frantziako bidearri ekin nahi izanez gero, Burgosera joan behar da, 83 bat kilometroko distantziara, gutxi gorabehera.

II. ERANSKINA

MUGAKETA

Mugaketa-eremua.

Ondarearen mugatzat II. eranskin honen dokumentu grafikoetan jasotakoa zehaztu da; funtsean, Donejakue Bidearen trazadurarekin bat dator. Era berean, Donejakue Bidearen baitan sartu da bidetrazaduraren euskarri den obra zibila, bai eta eranskin honetan adierazitako monumentu-multzoetarako zehaztutako mugak ere; horiek dagozkien zerrendetan jaso dira.

Kalifikatutako ondarearen mugaketa bere kasa justifikatzen da, deskribatutako elementuen balio kulturala dela-eta. Donejakue Bidearen mugaketa, berriz, beharrezkoa da, horri balioa emateko eta dagokion babes-erregimena koherentziaz aplikatzeko.

III. ERANSKINA

BABES-ERREGIMENA

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Babes-erregimenaren izaera.

Babes-erregimen hau idazteko arrazoia Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 12. artikuluak arautzen du. Donejakue Bidea Kalifikatutako Monumentu Multzo deklaratzeko izendapenaren baitan sartzen da, eta babes-erregimenak adierazitako alderdiek izaera loteslea dute kultura-ondasun hori kontserbatu edo berreskuratzeko eragiketetekiko. Hala arautzen dute adierazitako lege horretako 28.1 artikuluak eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 199. artikuluak. Horiek horrela izanda ere, hirigintza-planeamenduko bitartekoek arau murriztaileagoak xeda ditzakete, ondarea kontserbatzeko neurrien jardun-modua zehazteko.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Babestutako elementu guztiak Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea-

tre Álava y Burgos en las inmediaciones de Miranda de Ebro donde se pone fin al Camino de Santiago, en concreto a la ruta del Túnel de San Adrián que recorre las tierras de Gipuzkoa y Álava. Para conectar con el Camino de Santiago francés hay que desplazarse hasta la localidad de Burgos, a unos 83 kilómetros de distancia.

ANEXO II

DELIMITACIÓN

Ámbito de la delimitación.

Se establece como delimitación del Bien la recogida en la documentación gráfica incluida en el presente anexo II, y que se corresponde básicamente con el trazado del Camino. Así mismo, se considera dentro del ámbito del Camino de Santiago la Obra civil soporte del trazado viario y las delimitaciones grafiadas para los Conjuntos Monumentales señaladas en el presente anexo, y que se recogen en los listados correspondientes.

La delimitación del bien calificado se justifica por sí misma, dado el fundamentado valor cultural de los elementos descritos. La delimitación del Camino resulta necesaria para la puesta en valor del mismo y la coherente aplicación del régimen de protección.

ANEXO III

RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

CAPÍTULO I
GENERALIDADES

Artículo 1.– Carácter del régimen de protección.

El presente régimen de protección tiene justificada su redacción según el artículo 12 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco. Forma parte de la declaración del Camino de Santiago como Conjunto Monumental Calificado y tiene carácter vinculante sobre cualquier operación de conservación o recuperación del Bien Cultural, tal como se prevé en el artículo 28.1 de la misma Ley y en el artículo 199 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, sin perjuicio de que los instrumentos de planeamiento aplicables establezcan condiciones más restrictivas sobre los términos en que deban desarrollarse las medidas tendentes a la conservación del patrimonio.

Artículo 2.– Ámbito de aplicación.

1.– Todos los elementos incluidos en cualquiera de los diversos niveles de protección, estarán sujetos,

ren menpean egongo dira, alde hauei dagokienez: baimen-erregimena, erabilera, jarduera, defentsa, zigorrak, arau-hausteak, esku-hartzeak eta abar.

2.– Jarraian finkatzen den babes-erregimena osorik aplikatuko zaie Donejakue Bideko elementu guztiei, hura Monumentu Multzo gisa duen kalifikazioaren barnean mugatuta dauden heinean eta kalifikazio horren berezko ondorena adieraziz.

3.– Monumentu edo Monumentu Multzo gisa kalifikatutako kultura-ondasunek edo etorkizunean izaera hori izan dezaketen kultura-ondasunek, izaera hori izateagatik, berariazko babes-erregimen bat badute, erregimen edo araubide hori izango zaie aplikagarri, eta araubide honen aplikazioa haien ordezkoa izango da.

3. artikulua.– Donejakue Bideari lotutako elementuak.

Donejakue Bidearen Monumentu Multzoari lotutako elementuak dira:

a) Ibilbidea bera eta hura osatzen duten bidemotak.

b) Bidea osatzen duen obra zibila.

c) Bideari lotutako monumentu-multzoak eta higiezinak.

d) Bideari lotutako beste elementu batzuk.

4. artikulua.– Garrantzi bereziko elementuak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.1.e) artikuluak araututakoa betetzeko, garrantzi bereziko elementutzat joko dira babes bereziko elementuen zerrendan jasotako elementu guztiak, Donejakue Bideari lotuta daudenak.

5. artikulua.– Hirigintza-planeamenduarekiko lotura.

1.– Bideari lotutako ondarearen babesaren baitan, babes-erregimen honek baldintza orokor batzuk finkatzen ditu, lurralde-izaerako planeamenduak zein babes-erregimen hau garatuko duen hirigintza-planeamenduak bete beharrekoak. Azken agiri horien berrikuspenek ere bete beharrekoa izango dute babes-erregimen hau.

2.– Babes-erregimen honetan dauden ondasunei aplika dakiekeen hirigintza-plangintzak Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko. 28.1 artikuluak aipatzen duen txostena beharko du. Txosten horretan edozein esku-hartzeren harmonizazio-maila jasoko da, oin berriko eraikuntzena barne.

3.– Babes-erregimen hau garatuko duten hirigintza-tresnak onartzen ez diren bitartean, zorrotz bete beharko da goian aipatutako legeko 28.2 artikulua.

en cuanto a régimen de autorización, uso, actividad, defensa, sanciones, infracciones, intervenciones y demás extremos, a lo previsto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

2.– El régimen de protección que se fija a continuación será de aplicación para la totalidad de los elementos afectos incluidos en la delimitación del Camino de Santiago inherente a su Calificación como Conjunto Monumental.

3.– Para aquellos elementos que estén declarados como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento o Conjunto Monumental, o lo sean en el futuro, y por tal circunstancia cuenten con un régimen de protección singularizado, les será de aplicación dicho régimen, resultando la presente normativa de aplicación supletoria.

Artículo 3.– Elementos afectos al Camino de Santiago.

Se consideran elementos afectos al Conjunto Monumental del Camino de Santiago, los siguientes:

a) El propio trazado del Camino y el tipo viario que lo soporte.

b) Obra civil como soporte del trazado viario.

c) Conjuntos monumentales e inmuebles afectos al Camino.

d) Otros elementos afectos.

Artículo 4.– Elementos de singular relevancia.

A los efectos de cumplimentar lo estipulado en el artículo 12.1.e) de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, se considerarán como elementos de singular relevancia los elementos afectos al Camino recogidos en la relación de elementos de protección especial incluidos en los listados anexos al presente régimen de protección.

Artículo 5.– Relación con el Planeamiento urbanístico.

1.– En lo referente a la protección del patrimonio afecto al Camino, el presente régimen de protección fija las condiciones generales a cumplir tanto por el planeamiento de carácter territorial como por el planeamiento urbanístico que desarrolle el presente régimen de protección, así como por las sucesivas revisiones a los que sean sometidos.

2.– El planeamiento urbanístico aplicable a los bienes incluidos en el presente régimen de protección, requerirá el informe que menciona el artículo 28.1 de la Ley 7/1990, de 3 julio, de Patrimonio Cultural Vasco, el cual incluirá el grado de armonización de cualquier intervención, incluida la edificación de nueva planta.

3.– En tanto no se aprueben los instrumentos urbanísticos que desarrollen el presente régimen de protección, será de estricto cumplimiento el artículo 28.2 de la citada Ley.

6. artikulua.– Erabilerak eta zaintzeko betebeharra.

1.– Donejakue Bideari lotutako elementuen erabilerek bermatu egin behar dute haien kontserbazioa, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko III. Tituluaren zehaztapenak urratu gabe.

2.– Babes-erregimen honek aukera emango balu babestutako ondasunen ezaugarri tipologikoak eta formalak aldatuko dituzten erabilerak emateko Donejakue Bideari lotutako elementuei, betebeharrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak erabilera horiei buruz berariaz xedatzen duena betetzea. Xedapen horiek emateko, aldez aurretik txosten bat egin beharko du Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 6. artikuluak aurreikusten duen aholkularitza-organoak.

3.– Babes-araubide honen eraginpeko ondasunen jabeek Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 20. eta 35. artikuluetako betebeharrak izango dituzte, ondasunok iraunarazi, zaindu eta babesteari dagokienez.

7. artikulua.– Eraikuntzako esku-hartzeak.

1.– Espazio publikoetan burutu beharreko jarduera orok espazio horien izaera eta egitura indartuko du eta, halaber, hiri-altzariak multzo osoaren inguruneizaerarekin integratu eta harmonizatuko ditu.

2.– Babes-erregimen honek aipatzen dituen birgaitzeko esku-hartzeen motak Ondare Urbanizatua Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan garatutakoak dira.

3.– Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak arautzen duenari jarraituz, kalifikatutako kultura-ondasunetan eta horien inguruetan egin nahi diren esku-hartzeek dagokion lurraldeko foru-aldundiaren baimena beharko dute, eta baimen hori eskuratu beharko da udal-lizentzia eskuratu aurretik. Erlijio-gurtzarako kultura-ondasunen kasuan, aintzat hartu beharko dira erabilera horrek dituen eskakizunak.

4.– Babes-erregimen honetako babes bereziko, ertaineko, oinarrizko eta partzialeko zerrendan dauden ondasunak eraistea, zati batean edo osorik, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 36. artikuluan eta azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuan jasotakoarekin bat etorriz egin ahal izango da soilik. 306/1998 Dekretua kalifikatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari buruzkoa eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa da. Eraikinak barrutik hustea zatikako eraisketa egitea da, eta, beraz, lege-betekizun hori bete beharko du.

Artículo 6.– Usos y deber de conservación.

1.– El uso a que se destine cualquiera de los elementos vinculados al Camino deberá garantizar su conservación, sin contravenir en ningún momento las especificaciones del Título III de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

2.– En el caso de aquellos elementos en los que la aplicación del presente régimen de protección posibilite la introducción de usos que provoquen modificaciones en las características tipológicas o formales propias de los bienes protegidos, se estará a lo que a tal efecto disponga el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, previo informe preceptivo del órgano consultivo previsto en el artículo 6 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

3.– Los propietarios de los bienes afectados por el presente régimen de protección vendrán obligados al cumplimiento de las obligaciones de conservación, cuidado y protección impuestas por la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, en sus artículos 20 y 35.

Artículo 7.– Intervenciones constructivas.

1.– Toda actuación a ejecutar en espacios públicos potenciará el carácter y la estructura de los mismos, integrando y armonizando, asimismo, el mobiliario urbano con el carácter ambiental del conjunto.

2.– Los tipos de intervenciones de rehabilitación a que se refiere el presente régimen de protección son los desarrollados en el Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, de actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado.

3.– Tal como dispone la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, las intervenciones que deban realizarse sobre bienes culturales calificados y su entorno quedarán sujetas a autorización de la Diputación Foral correspondiente, la cual será previa a la concesión de licencia municipal. Cuando se trate de bienes culturales destinados al culto religioso, habrán de tenerse en cuenta las exigencias que dicho uso requiere.

4.– El derribo total o parcial de los bienes incluidos en los listados de protección especial, protección media o protección básica del presente régimen de protección sólo podrá realizarse de conformidad con lo dispuesto en el artículo 36 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, y en el Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados, y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos. El vaciado interior de los edificios tiene consideración de derribo parcial y, por ello, también está sujeto a este precepto legal.

8. artikulua.– Donejakue Bidearen seinaleztapena.

1.– Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren egitekoa izango da Donejakue Bidearen ibilbidea eta hari lotutako elementuen seinaleak jartzea.

2.– Donejakue Bideko seinaleztapenaren barruan sartuko diren elementuen normalizazioa eta zehaztapen formala gai hori garatuko duen aginduaren bidez arautuko da.

9. artikulua.– Esku hartzeko proiektuak.

1.– Babes berezia, ertaina edo oinarrizkoa araututa duten eraikinetan edozein esku-hartze egin aurretik, dagokion esku hartzeko proiektua egin beharko da. Hauek behar ditu esku hartzeko proiektu horrek:

a) Eraikinaren egoerari buruzko azterketa analitikoa; alegia, eraikinaren deskripzioa, eta kontserbazio-egoerari buruzko azterketa, txosten diagnostikoa, ondorioak eta esku-hartzeko oinarrizko gomendioak biltzen dituena.

Azterketa analitikoaren deskripzioak dokumentazio grafikoa jaso beharko du, 1/50 eskalan, gutxienez, oinak, aurretiko bistak eta sekzioak adierazteko; 1/20 eskalan, gutxienez, arkitektura-xehetasunak adierazteko; argazki-dokumentazio osoa, plano historikoak eta abar, eta egitura-sistemaren altxaera zehatza, dimentsionatua eta kotaduna. Dokumentazio horrekin batera azalpen-memoria aurkeztuko da, eta, baldin badago, eraikinari buruzko bibliografia.

Kontserbazio-egoerari buruzko azterketan –azterketa analitikoaren eranskin edo separata gisa aurkez daiteke–, beste batzuen artean, egitura-sisteman eragiten duten edo eragin dezaketen patologien azterketa eta elementu horiek zaintzeko beharrezko diren neurriak jasoko dira.

b) Dokumentazio grafikoa. Bertan, egin beharreko esku-hartzeak, erabiliko diren materialak, lanak egiteko exekuzio-faseak, zein bukaerako egoera adieraziko dira. Hori guztia eskala egokian egongo da, aurreko atalean eskatutakoan, gutxienez.

c) Esku-hartzearen helburuak, egingo diren lanak eta erabiliko diren teknikak adierazten dituen dokumentazio idatzia. Zer material erabiliko den adieraziko da, bai eta zer egonkortasun duen eta zer elkarreragin duen gainerako osagarriekin.

d) Eraikinaren bizitza ziurtatzeko eta egoki mantentzeko behar diren teknika eta bitartekoak zehaztea.

e) Esku-hartzearen aurrekontua, esku-hartze hori babes-araubide honek ezarritako aginduen arabera burutzeko behar diren teknika eta bitarteko guztiak barne hartzen dituena.

Artículo 8.– Señalización del Camino.

1.– Corresponderá al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco la señalización del trazado del Camino y los elementos afectos al mismo.

2.– La normalización y definición formal de los elementos que conformen la señalización del Camino se regulará mediante la correspondiente Orden que lo desarrolle.

Artículo 9.– Proyectos de intervención.

1.– Con carácter previo a la ejecución de cualquier intervención que se pretenda llevar a cabo sobre los edificios incluidos en los niveles de protección especial, media o básica, deberá elaborarse el correspondiente proyecto de intervención con el siguiente contenido:

a) Un Estudio Analítico del estado actual del edificio, consistente en la descripción del mismo y en el análisis de su estado de conservación, que incluya un informe de diagnóstico, conclusiones y recomendaciones básicas de actuación.

La parte descriptiva del Estudio Analítico contendrá la documentación gráfica a escala mínima de 1/50 para plantas, alzados y secciones, incluyendo detalles arquitectónicos a escala mínima 1/20, la documentación fotográfica completa, planos históricos, etc. y el levantamiento detallado, dimensionado y acotado del sistema estructural. Con la referida documentación se incluirá una memoria explicativa y, en su caso, la bibliografía correspondiente.

El análisis del estado de conservación, que puede figurar como anexo o separata del Estudio Analítico, en cualquier caso incluirá, entre otros, un estudio de las diferentes patologías que incidan o puedan incidir en el sistema estructural y las medidas previstas para la preservación de dichos elementos.

b) Documentación gráfica en la que se describirán las intervenciones a realizar, los materiales a utilizar, las fases para la ejecución de los trabajos, así como el estado final, toda ella representada a las escalas adecuadas, análogas como mínimo a las exigidas en el apartado anterior.

c) Documentación escrita que explicitará los objetivos de la intervención, los trabajos a realizar y las técnicas a utilizar, señalando materiales y analizando su estabilidad e interacción con los demás componentes.

d) Determinación de las técnicas y medios necesarios para el adecuado mantenimiento y aseguramiento de la vida de la edificación.

e) Presupuesto de la intervención, acorde con las técnicas y medios necesarios para la adecuada ejecución de las obras, de acuerdo con las prescripciones del presente régimen de protección.

f) Esku-hartzearen ondorioz, eraikuntza-atalen edo -elementuren bat kentzea proposatzen bada, eragindako zonaren azterketa estratigrafikoa egin beharko da, atal edo elementuaren egungo egoera adierazteko eta esku-hartzearen beharrezkotasuna justifikatzeko. Arau hori bera bete beharko da azterketa analitikoak adierazitako kasu eta zonetan.

2.– Proiektuen dokumentazioaren xede izango dira obrak edo esku-hartzeak eragindako eraikin-zatia; hala ere, salbuespen izango dira haiekin lotutako alderdi orokorrei egin beharreko erreferentzia grafiko eta idatziak, zati horiek hartzen dutena baino eremu handiagoei egin beharrekoak, edo, beharrezkoa bada, ondasuna bere osotasunean hartzen dutenak. Horren adibide izango dira esku-hartzea egin behar deneko kokapen-planoak eta esku-hartzeak berak eskatzen dituen gainerakoak.

II. KAPITULUA
BIDE-TRAZADURA, DONEJAKUE BIDEAREN EUSKARRI

10. artikulua.– Bide-trazadura, Donejakue Bidearen euskarri.

1.– Babes-erregimen honetan, bide-trazadura osatuko dute Donejakue Bideak Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzean euskarritzat dituen pistak, bideak, bide historikoak, errepideak eta kaleak, Donejakue Bideak berak dituen bi ibilbideetan: kostaldeko bidean eta San Adriango tunelaren bidean.

2.– III. eranskineko planoetan adierazten da Donejakue Bidearen bide-trazadura.

3.– Bidearen trazadura aldaezina izango da obra zibiletatik igarotzean eta trazaduraren euskarri diren elementu babestuetatik igarotzean. Espediente honetan adierazten dira horiek guztiak. Trazadura aldatzeko aukera izango da, baldin eta aldaketa hori justifikatzeko nahikoa arrazoi badago. Trazadura aldatzen bada, aldatu egin beharko da Donejakue Bidea kultura-ondasun gisa kalifikatzen duen dekretua.

4.– Administrazio eskudunak izango dira, Bidearen euskarri trazadura-motaren arabera, bide-trazadura egoera onean zaintzearen arduradunak; ildo horretatik, neurriak hartuko dituzte Bidearen zatiak kaltetu edo hondatu ez daitezen, eta bide-trazadura zaintzeko eta babesteko berezkoak diren eginkizunak beteko dituzte.

11. artikulua.– Bide-trazaduraren sailkapena.

Donejakue Bidearen trazadurak arazo-mota diferenteak dakartza trazadura horren euskarri den bidemotaren arabera; hala, bide-trazaduraren sailkapen hau finkatzen da, kasuan-kasuan egokiak diren neurriak ezartzeko:

f) En el caso de que la intervención proponga la eliminación de algún cuerpo de edificación o elemento concreto, se deberá hacer un Análisis Estratigráfico de la zona afectada, de manera que quede onstancia del estado actual del cuerpo o elemento, así como la justificación de la intervención. a misma prescripción se aplicará en el caso y la zonas en que el EstudioAnalítico aí lo xia

2.– La documentación de los proyectos se referirá a la parte del edificio afectada por las obras o intervención, salvo las necesarias referencias gráficas y escritas a aspectos generales relacionados y ámbitos de mayor alcance o, incluso, a la totalidad del bien, como, por ejemplo, los planos de emplazamiento relativo de la intervención y otros que se consideren precisos en función del carácter de la misma.

CAPÍTULO II
EL TRAZADO VIARIO COMO SOPORTE DEL CAMINO

Artículo 10.– El Viario como soporte del Camino.

1.– A efectos del presente régimen de protección se entenderá por trazado viario como soporte del Camino el conjunto de pistas, caminos, caminos históricos, carreteras y calles por los que discurre el itinerario del Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma, en cualquiera de sus rutas: Camino de la Costa o Camino del túnel de San Adrián.

2.– Dicho trazado viario se corresponde con el grafiado en los planos recogidos en el anexo III.

3.– El trazado del Camino será inamovible cuando discurre sobre obra civil y elementos soporte del trazado protegidos que se señalan en este expediente. El trazado podrá ser objeto de modificación cuando concurran razones que así lo justifiquen. En cualquier caso, la modificación del trazado supondrá la modificación del Decreto de calificación como Bien Cultural del Camino de Santiago.

4.– Serán las Administraciones competentes en función del tipo de trazado viario soporte del Camino, las encargadas de velar por su buen estado y conservación, adoptando las medidas oportunas para evitar el deterioro o destrucción de los tramos del Camino y realizando las funciones concretas de conservación y protección del mismo que les sean propias.

Artículo 11.– Clasificación del trazado viario.

Dado que el referido trazado viario del Camino plantea problemas diferentes en función del tipo de vía sobre el que discurre y, de cara a establecer las medidas oportunas en cada caso, se establece la siguiente clasificación del trazado viario:

a) Bideak, bide historikoak eta pistak. Landalurretan kokatuta dauden bide-trazadurak dira, asfaltatuak nahiz asfaltatu gabeak, sektore-legediak errepide gisa sailkatuta ez dituenak.

b) Errepideak, hiru lurralde historikoetako foru-arauek araututako kategorien arabera.

c) Hiri-lurzoruan dauden kaleak, hirigintza-planeamenduek zehaztutako moduan.

12. artikulua.– Babes-eremuak.

1.– Babes-eremu hauek zehazten dira, 11. artikuluko a) paragrafoan adierazten diren ibilbideentzat, Donejakue Bidearen euskarri diren heinean:

– Zortasun-eremua

– Afekzio-eremua

2.– Zortasun-eremua izango da Donejakue Bidearen ondoan paraleloan doan lur-zerrenda, 3 metroko zabalerakoa, Bidearen euskarri den laugunearen ertzetik neurtuta.

3.– Donejakue Bidearen afekzio-eremua izango da Bidearen ertzetatik paraleloan doan lur-zerrenda, zortasun-eremuaren mugaren eta Bidearen euskarri den laugunearen ertzetik 30 metrora izango den lerrora bitartekoa.

13. artikulua.– Trazadurari aplikatuko zaion araubidea bideetatik, bide historikoetatik eta pistetatik igarotzen denean.

1.– Donejakue Bidea bideetatik, bide historikoetatik edo pistetatik igarotzen den zatian debekatuta izango da motordun ibilgailuetan zirkulatzea, salbu eta, babes-araubide hau indarrean sartzeko unean, finkaren edo baserriren batera sartzeko bide bakar diren zatietan.

2.– Xedapen hauek bete behar dira 12.2 artikuluak zehaztutako zortasun-eremuan:

a) Eraikitzekoak ez diren jarduerak:

– Debekatuta daude meatze-ustiapena, harrimaterialen erauzketa eta harrobiak.

– Debekatuta daude lur-mugimenduak, hurrengo epigrafean baimentzen diren azpiegiturak ezartzeko behar direnak izan ezik.

b) Eraikuntza-jarduerak:

– Zerbitzuren bat emateko azpiegiturak sortzea eta hodiak sartzea jarduera onargarriak izango dira. Horretarako baimena dagokion aldundiko Kultura Sailak emango du, behin egitasmo osoa aurkeztuta. Egitasmoan bideak jasango duen eragina azalduko da, eta bidea behar bezala osatzeko neurriak proposatuko dira.

a) Caminos, caminos históricos y pistas. Corresponden a aquellos trazados viarios, asfaltados o no, ubicados en suelo rústico, que no están considerados carreteras por la legislación sectorial correspondiente.

b) Carreteras, en cualquiera de las categorías establecidas en las respectivas Normas Forales de cada uno de los tres territorios históricos.

c) Calles en suelo urbano, según queden definidas por el planeamiento urbanístico correspondiente.

Artículo 12.– Zonas de protección.

1.– Para los trazados definidos en el apartado a) del artículo 11 que resulten soporte del itinerario del Camino de Santiago, se definen las siguientes zonas de protección:

– Zona de servidumbre

– Zona de afección

2.– Se define como zona de servidumbre una franja de terreno paralela a cada lado del Camino en una anchura de 3 metros medidos desde el borde de la explanación en que se asiente el Camino.

3.– Se define como zona de afección del Camino de Santiago una franja de terreno paralela a los bordes del Camino y definida por el límite de la zona de servidumbre y una línea situada a 30 metros del borde de la explanación en que se asiente el Camino.

Artículo 13.– Régimen aplicable al trazado cuando transcurre por caminos, caminos históricos y pistas.

1.– En el espacio ocupado por el Camino cuando transcurre por caminos, caminos históricos y pistas, queda prohibido el tráfico de cualquier vehículo a motor, excepto en aquellos tramos en que a la entrada en vigor del presente régimen de protección sirvan como vial de acceso único a alguna finca o caserío.

2.– Para la zona de servidumbre definida en los términos del artículo 12.2 serán de aplicación las siguientes determinaciones:

a) Actividades no constructivas:

– Quedan prohibidas la explotación minera, la extracción de materiales pétreos y las canteras.

– Quedan prohibidos los movimientos de tierra salvo los devenidos de implantación de infraestructuras autorizadas por el epígrafe siguiente.

b) Actividades constructivas:

– Podrán autorizarse la ejecución de infraestructuras y conducciones de servicios, para lo que habrá de solicitarse permiso al Departamento de Cultura de la Diputación correspondiente, acompañado de proyecto completo en el que se contemple el impacto causado y las medidas a tomar para la restitución del Camino en las debidas condiciones.

3.– Xedapen hauek bete behar dira 12.3 artikuluak zehaztutako afekzio-eremuan:

a) Eraikitzekoak ez diren jarduerak:

– Lur-mugimenduak egitea, luberritzea, zura eta egurra ustiatzea eta antzeko jarduera onargarriak izango dira, aldundi arduraduneko Kultura Departamentuak baimena emanez gero.

– Debekatuta izango da meatze-ustiategi eta harrobi berriak egitea.

b) Eraikuntza-jarduerak:

– Bidea eta bere ingurua kontserbatu, hobetu eta harekin gozatzeko azpiegiturak, zerbitzuak eta instalazioak egitea onartuko da. Horretarako berariazko baimena eskatuko zaio aldundi arduraduneko Kultura Departamentuari, 13.2.b) artikuluak agintzen duenez.

4.– Bideko pistetan, aurreko paragrafoan xedatutako jarduerez gain, zoruari eusteko eta hura hobetzeko jarduerak baimenduko dira. Horien lehentasunezko erabilera izango da oinezkoek, bizikletek edo zaldiek erabiltzea, eta, horrez gain, nekazaritza eta basogintzarako makinek erabiltzea onartuko da.

5.– Pistak nekazaritzako eta basogintzako makinek erabiliko badute, toki-administrazioek aldez aurreko bermeak ezarri beharko dituzte erabilera horiek baimendu baino lehen. Horren xedea izango da zorua bere onera ekarriko dela ziurtatzea makinek kalteak eragiten badituzte pistetatik igarotzean.

6.– Bide historikoetan, haiek sendotzeko jarduerak baimenduko dira, baita haien zorua hobetzekoak ere, material bigunekin amaitutakoak badira. Kasu guztietan, haien zabalerari eutsiko zaio, oinezkoek soilik erabiliko dituzten bideak izaten jarrai dezaten.

7.– Oinezkoak, bizikletak eta zaldiak soilik ibil daitezke bide historikoetan, eta berariaz debekatzen da motordun ibilgailuak haietatik ibiltzea. Horren salbuespena izango da bide horiek izatea, babes-erregimen hau argitaratzen den unean, finka edo baserrietara joateko sarbide bakarra. Salbuespen horiek ematen badira, bidea bikoizteari ekingo zaio. Makinek ezin dute bide horietatik igaro edo bide horiek erabili.

8.– Babestu egingo dira, beren kultura-balioari erreparatuta, babes-erregimen honen IV. eranskineko 1. zerrendan adierazten diren bide historikoak.

14. artikulua.– Bidearen trazaduraren erregimena errepidetatik igarotzean.

Donejakue Bideko zatiren bat izaera publikoko errepidea bada, hiru lurralde historikoetako foru-arauek zehaztutako mailetatik edozeinetakoa, foru-arau horiei jarraituko zaie babes-gunea, onartutako eta debekatutako erabilerak, eraikitzeko lerroak eta

3.– Para la zona de afección definida en los términos del artículo 12.3, serán de aplicación las siguientes determinaciones:

a) Actividades no constructivas:

– Podrán autorizarse aquellas que impliquen movimiento de tierras, roturación, aprovechamiento maderero y de leña, etc., siempre que cuenten con permiso expreso del Departamento de Cultura de la Diputación Foral correspondiente.

– Se prohíbe la apertura de nuevas explotaciones mineras y canteras.

b) Actividades constructivas:

– Podrán autorizarse la ejecución de infraestructuras, conducciones de servicios y las instalaciones vinculadas a la conservación, mejora y disfrute del Camino y su entorno, para lo que se solicitará permiso expreso al Departamento de Cultura de la Diputación Foral correspondiente, en los mismos términos que los establecidos en el artículo 13.2.b).

